ELEKTRIZITATERIK GABE ZER?

MIKEL OTEIZA ALMANDOZ
DBH 1. eta 2. kurtsoak 2. saria
Arantzako Herri Eskola

Orain dela egun batzuk, Ugaitzi eskolan liburu bat eman zioten irakurtzeko, hemendik 40 urtera mundura nolakoa izanen zen azaltzen zuena. 14 urteko mutil horrek ez zeukan horrelako gogorik liburua irakurtzeko. Orduan pentsatu zuen 5 orrialde irakurtzea eta listo.

Gauean ohean zegoela, irakurtzen hastea pentsatu zuen. Hartu zuen 249 orrialdeko liburu hura eta azalari begira geratu zen.

Azalan robot bat azaltzen zen. Orduan esan zuen:

–Hasi gara berriro ere betiko liburu aspergarri hauekin.

Noizbait ere hasi zen liburu hura irakurtzen. "*Bazen behin mundu bat non denak ondo bizi ziren. Makina aurreratu eta robotekin. Gauza gehienak robotek egiten zituzten*".

Orrialde bat irakurri aurretik loak hartu zuen eta amets sendo batean sartu zen.

–Ugaitz esnatu!!!

–Zer? Zer? Zer gertatzen da?

–Ez al zara oroitzen gaur basora egur bila joan behar duzula?

–Baina ama, non gaude?

–Ea mutiko, ez egin tontoarena eta joan egur bila.

–Bale, bale, baina nondik joaten da basora?

–Har ezazu aizkora eta atera ate horretatik oraintxe bertan!!!

–Bale, bale!!!

Joan da Ugaitz egur bila. Lehendabiziko ikusi duen zuhaitz handiena bota du. Egurra xehetu eta etxera eraman du.

–Ama, ama, berriro etxean nago!!

–Ongi seme, orain hartu aitzurra eta atera lursagarrak.

–Zer? Sagarra ez da lurrean egoten, arbolan baizik.

Bat-batean ikaragarrizko soinua sumatu da. Plasttt!!!

Ikaragarrizko zartakoa eman dio amak Ugaitzi zartaginarekin.

–Ederra egin dut orain. Atzo erositako zartagina mazatu egin didazu.

–Aiiiii!

–Kexa gutxiagorekin, hartu aitzurra eta atera lursagarrak, oraintxe bertan. A! eta hobe duzu aitzurra berriro ez haustea, badakizu aitzur horrek zenbat ontza balio zituen?

–Ze ontza eta ze uso!!!

–Je je je, ze berriro tontoarena egiten? Hurrengoan zuk ordainduko duzu!

–Bale, bale, banoa.

Etxetik kanpora atera denean Tomas aurkitu du.

–Eeee Tomas! Zuk badakizu zer den lursagarra?

–Lursagarra ez al dakizu zer den?

–Eeee bai. Baina, ez dakit non dagoen gure etxekoa.

–Beno, beno, hori ere entzun beharra. Hortxe daukazu.

–Eskerrik asko!!!

–Bale, bale, ni banoa erotu aurretik.

Eguerdia ailegatu da eta Ugaitzek lursagar guztiak atera ditu.

–Ama!!! Zer da bazkaltzeko?

–Aza eta ilarra.

–Buaj, hori nazka!

–Mirgin zaharra, dena janen duzu.

–Bale!

Bazkaldu dute azkenean eta Ugaitzen ama, Pepa, siestara joan da. Ugaitzek ez daki zer egin eta orduan telebista ikustea bururatu zaio baina ez du inon aurkitzen. Etxe osoa miatu du eta enteratu da ez dagoela elektrizitatearekin funtzionatzen duen ezer. Pepa esnatu da eta Ugaitzek galdetzen dio.

–Ama!!! Non dago telebista?

–Ze telebista! Hemen ez dago ezer telebista izenekorik. Eta gero esaten dute zahartzerakoan hasten dela burua joaten?

–Bale, bale eta nola solastuko naiz Igorrekin?

–Jarri maindire zuri bat leihotik behera zintzilik eta listo. Behin ere ez duzula egin ematen du.

Ugaitzek jarri du maindire zuri bat zintzilik baina momentu horretan haize bolada batek maindirea eraman dio. Orduan maindire gorria jartzen du leihotik behera, ez baitzeukan beste maindire zuririk. Orduan herritar guztiek ikusten dute maindire gorria zintzilik. Maindire gorriak norbait eri dagoela esan nahi du. Orduan herri guztia lasterka Ugaitzen etxera joan da.

–Tok, tok.

–Nor da?

–Ni apeza naiz.

Orduan Ugaitzek atea ireki du.

–Jesus, Maria eta Jose nor dago eri?

–Hemen ez dago inor eri.

–Nola ezetz, maindire gorria zegoen leihotik zintzilik.

–Aaaa!! Maindire hori nik jarri dut.

–Zergatik jarri duzu?

–Maindire zuria haizeak eraman dit eta ez neukan beste maindire zuririk, orduan maindire gorria jarri dut. Igorrekin solastu nahi nuelako.

–Tonto alena!! Hori ikara eman diozun guztiari.

Orduan Pepak makil bat hartu eta zanpateko bat eman behar zionean, zakla!!! Esnatu egin zen. Ugaitz bere gelan zegoen.

Lehendabizi bere mugikorra galtzaren sakelan ote zegoen begiratu zuen eta gero bere aurrean begiratu zuen ordenagailua ikusteko. Eskerrak dena amets gaizto bat izan dela. Hasperen handi bat egin zuen eta berriro lotan jarraitu zuen.